

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Funtsezkoa da argi eta garbi definitzea gure enpresak bezeroekin nolako harremana ezartzea nahi dugun, bezeroak erakartzeko eta ondoren bezero horiek mantentzeko.

Gure enpresaren asmoa ahalik eta bezero gehien erakartzea da, gure egitasmoa kontaminazioa gutxitzea delako, hau da, gero eta jende gehiago birziklatzen hastea, horregatik jende asko batzen bada gure proiektura emaitz azkarra eta hobeagoa lortuko dugu.

Bezeroak erakartzeko Gasteizko Udala lagunduko digu. Adibidez udalaren webgune ofizialean (<https://www.vitoria-gasteiz.org>) gure zakarrontziaren iragarki bat jartzen eta iragarki horretan gure zakarrontziaren informazioa jartzen, hau da, non ipiniko dira, zer birziklatu dezakegu zakarrontzian, zer irabaziko dugu... Irtenbide hau aukeratuko dugu papera ez gastatzeko, hau da paperezko iragarkiak jarri nahiko bagenu, paper asko erabili beharko genuke eta hori gure proiektuaren kontra doa, beraz iragarkiak bakarrik interneten bidez lortuko dira.

Gasteizeko hainbat ikastetxera(DBH(4.DBH, bakarrik 16 urte dutenak)) eta Batxiller, bakarrik 16 urte edo gehiago duten neska-mutilak izango dutelako txartela) joango gara, gure zakarrontzia aurkezteko eta haien interesa pizteko. Ikastetxetan (powerpoint baten bidez) gure proiektua aurkeztuko dugu eta aurkezpenaren amaieran, ikasle eta irakasle guztiei gure zakarrontzian birziklatzeagatik lortzen dituzun puntuak gordetzen duen txartela banatuko diegu, guztiek birziklatzeko aukera izateko. Ere udalaren webgunean dagoen zakarrontziaren linka emango diegu Whatsapp-etik partekatzeko.

Zakarrontziak jarriko diren tokietan, hau da, Gasteizeko gizarte-etxe guztietan, hitzaldiak emango dira zakarrontzia inauguratu baino lehen. Hitzaldietan argituko dira bezeroek dituzten zalantza guztiak, adibidez: nola funtzionatzen duen zakarrontzia, nola erabiltzen txartela, noiz lortuko dituzten sariak eta beste hainbat zalantzak.

Bezeroen interesa pizteko sariak erabiliko ditugu, hau da, birziklatu ondoren txartelan txertatu diren puntuak metatzen sari ezberdinak emango ditugu, hala nola, deskontuak elkarren eta beste zenbait lekutan. Baita ere, interesa piztuko diegu hainbat bezeroei, gure proiektua oinarritzen delako

birziklapenean, eta gero eta jende gehiago birziklatzen badu gero eta bizi-kalitate hobeto izango dugu eta kontaminazioa gutxituko dugu.

Bezeroak mantentzeko, gure proiektua ondo bada eta gero eta jende gehiago batzen bada gure proiektura, sariak handituko dugu eta saiatuko gara gure zakarrontziak zabaltzen Euskal Herritik. Baina horretarako gure proiektua ondo atera beharko litzateke. Ondo ateratzen bada eta bezeroei gustatzen bazaie, errazago izango da beste enpresa batzuekin harremanetan jartzea gurekin kolaboratzeko eta gurekin lan egiteko prest egotea.

Horrekin bezeroak mantentzeaz aparte, lortuko dugu jende berria gure proiektura batzea, sari ezberdinak egongo direlako, eta ondo ateratzen bada, gure zakarrontzia beste hirietatik zabalduko dugulako, beraz zabaltzen badugu, hiri berrietako bezeroak lortuko ditugu eta horrela gero eta bezero gehiago gehituko dira gure proiektura.